

Antonio Zubizarreta Berraondo

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa (1921)*

Aurkibidea

Biografia



Izurieta auzoko Olabena baserrian jaio zen 1921ean. Euren etxea eliza ondoan zegoen eta beraiek egiten zuten sakristau lana. Auzoan bertan ibili zen eskolan, baina oinarri-oinarrizko gauzak besterik ez zituen ikasi. Soldadutza Afrikan egin zuen. Harrobian lan egina da, baita peoi lanetan ere. 34 urte ingururekin Aramaioko Untzila auzoko Palazio baserrira ezkondu zen eta bertan bizi da orduetik.

Zintak

ARE-031

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-04-30
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ARE-032

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-04-30
- **Iraupena:** 41 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. 88 urteko gizona

- **Erref:** ARE-031/002
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:00:07. **Bukatu:** 00:02:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Antonio Zubizarreta Berraondo Aretxabaletako Isurieta auzoko Olabe baserrian jaio zen, duela 88 urte, 1921eko apirilaren 18an. Entzumena apur bat gogortuta duela eta medikura joan zen, ezko-tapoiak izango zituelakoan. Ez zirela tapoiak, zahartzaroa baino, esan zion medikuak.

Transkripzioa

- Antonio Zubizarreta Berraondo Mujika Garai. Hemen gaoz aspaldixan, larogeta zortzi urte indda, eta hiltteko gogo gutxi. Eta hemen be aidamen haundirik ez, belaunak astunak eta hazurrak astunaguak; badakitzu hori zela dan?
- Baiña itxuria ez dakotzu bapebe txarra.
- Txarra, txarra... guk berez hil bihar dogu. Pertsoniak horixe dako txarra, sikiera ganaua aprobetxau itten da, eta gu lurpera.
- Nun jaixo ziñan, Antonio?
- Ni Atxabaltan, baserritxua, Atxabaltatik bi kilometrora, Isurieta.
- Zela da baserrixen izena?
- Isurieta, "barrio" Isurieta.
- A, auzua. Etxia?
- Etxia Olabe, "caserio" Olabe.
- Eta ze egunetan jaixo ziñan?
- Ni "dieziocho de abril de mil novezientos veinte uno".
- Urtiak bete barri (di)ttozu orduen. Zuk igual ezagutuko dozu Gregori, han

Urezaundin bizi dana. Urezaundira ezkondata.

- Gregori?
- Gregori Bengoa.
- Hori Azatzagakua, ezta?
- Ez, Eskoriatzakua, e? Hori bizi da Urezaundi baserrixan; Mazmela da izatez, eta harek bete zittun fan zan hogeta lauan, fan zan ebaikutzian bete zittun larogeta hemezortzi.
- Ha be ez dau asko hobeto.
- Entzuteko eukan problemak, baiña burua argi.
- Hori aldian daukat neuk be, honek beronek gura dauenian entzuten dau.
- Hori ona da.
- (Loba): Komeni danian, horrek komeni danian entzuten dotsu.
- Hau astunduta dauket apur bat, aspalditxuan behintzet. Fan nintzuan medikuana eta zaharzarua neukala. Tapoiak neukelako fan nitzan medikuana eta tapoirik ez daukala, zaharzarua daukala. [...] edarrak.

2. 34 urtera arte Olabe baserrian

- **Erref:** ARE-031/003
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:02:26. **Bukatu:** 00:04:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Sei anai-arrebatatik bera bakarrik bizi da. Anaia zaharrena, Seberiano, gerran hil zuten. 34 urte zituenean, Antonio Untzillako Palacio baserria ezkondu zen. Ordura arte Olaben bizi izan zen. Harrobian edota eraikuntzako peoi lanetan jardunaz bat, baserriko eginbeharrei ere eusten zien.</p>

Transkripzioa

- (Loba): zenbat anai-arreba izan ziñaten, tio?
- Anai-arrebak, bost anai eta arrebia. Arrebia oiñ hil dok eta anai bat gerran galdu nixuan, anairik zaharrena Severiano Zubizarreta, ta Pedro be hil zuan, Ramon be bai ta hor senittartian neu na bakarrik.
- Eta zu zer ziñan, gaztiena?
- Ez, gaztiena beste bat, hil jatena.
- Zu bigarrena ziñan?
- Bai, nere odoleko bat be ez da bizi oiñ, "último tio".
- (Loba): bai, igez hil jakon anai gaztiena.
- Eta nola etorri ziñan ba, Untzillara?
- Txikitxo batek ez nindduan ba dominau hona etorteko?
- Puxka baterako dominau zindduan.
- Etorri in bihar, ze ingo neben ba? Han be majaderokixak batzuk itten gittuan ta... hemen be bai, asko fixau ezkerro.
- Etxe honek zela dako izena?
- "Caserío Palacio".
- Eta hona zenbat urtekin etorri ziñan zu hona?
- Ni hogeta hamalau urteaz, berrogeta hamabi urte ingo (di)ttut nik hemen.
- Ezkondu hona in ziñan, edo aurretik ezkondata zeontzen?
- Ez, ezkontzaz hona etorri nitzan, "veinti dos de abril"-edo izan bihar euen.
- Eta zer da, zure andria da hemengua?
- Bai. Hemen da, puntuan etorriko da, ez dakit ba nik zer... sekula,

gutxittan faten da ogera hola ta...

- Eta han Olaben, orduan Olaben egon ziñan hogeta hamalau urte arte?
- Bai. Parte itten nauen kanteran be bai, honen aittagaz, anaiaz; gero obretan be bai, pioi, etxiak in, ganau askak, eta nunbaitten aberixa bat badau, arreglau hareik be; eta gero parte ba etxien.

3. Gerratik libratu zen

- **Erref:** ARE-031/004
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:04:48. **Bukatu:** 00:06:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Olabe baserria laborantza handiko baserria zen. 15 ganadu-buru inguru ukuiluan, eta txerri pare bat ere hazten zituzten urtean. Gose denboran, kontu handiarekin hiltzen zituzten etxerako abereak. Egun gutxigatik libratu zen gerratik, baina gero soldadutzan 11 kinta elkarrekin egon ziren. "Gorrien" bandokoek gerran emandako beste denborako soldadutza egin behar izan zuten.</p>

Transkripzioa

- Etxe haundixa zan, labrantza haundixa. Ehun anega gari hartzen ziranian...
- Ehun anega?
- Ehun? Bu! Aurten urte eskasa! Han ta hareik ez oingo makinariakin, danak "a base de sudor" in bihar izaten ziren.
- Eskuakin.
- Bai, oiñ ezebe ez da makiñakin, jo ta momentuen, baiña orduan e...
- Eta ganauak-eta, ardixak-eta, bazeukein?
- Ganauak be eukitten gittuen hamalau-hamabost inguru, gero txarri bi edo bat behintzet betik hiltten gauen, bat haundixa edo bestela bi hiltten gittuen, beste txahaltxon bat be bai iñoiz, eta gerra denporako gose urtietan tximirixapeien erre eta ezkaratzien be bai. Kalien ez euen ametiuten ta, kanpuan in biher. Ta illunkaran aittak eta, nere aittajaunak be ondo itteuen karnazero edo hola behentzet "estilo baserri", eta han barruen in eta lañaatuari begira, keie ikusi ez daixen, bestela hau eta hau euen orduan, e? Hau, [...] baziñan, e? Hareik urtiak serixuak ziren. Eta gero dana gastau zan, janok eta danok, eta janok eozen lekuok inkomunikauta frentiak, eta pasau ziren hareik be.
- Zu zeu fan ziñan gerrara?
- Gaur fateko, bixar fateko geratu zitzan. Ni berrogeta bikua naz, eta ointxe deittuko du, "cuarenta y uno" a deittuta ta deittuko du, deittuko du, baiña gero hiru urtian hamaika kintta egon gitza batera soldau.
- Hamaika kintta?
- Gorrixetan ibilli zirenai, lutxetan, ha denporia eraginetzen ejerzitan.

4. Monagiloak, sakristauak eta "amakasak"

- **Erref:** ARE-031/006
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Ardirik ez zuten inoiz eduki. Lurrak oso aberatsak ziren, baina erripa handietan zeuden. Laian aritutakoa da Antonio. Olabe baserria eliza ondoan zegoen, eta Olabetarrak ziren bertako sakristauak. Antonio monagilo ibili zen. "Amakasa"-k (serora) garbitzen zuen eliza. Don Francisco Saloña zen abadea, dotrinazale amorratua.</p></div>

Transkripzioa

- Eta ardirik ez zeukein?
- Ez, ardixak, guk laixan ittegauen, badakizue zer dan laixan?
- Bai, nik ez dot sekula iñ baiña badakit zer dan.
- Ha izaten zan ba jakiña, terrenu danak euzen, aldapa haundixak, eta lurra asko behera fan ez dain ba laixiaz lagunketan jakon, bestela behia berehala kargetan zan, eta lurrari kaso in bihar. Lurrak fiñak ziren baiña erripak, aldapa haundixak, baiña bestela garixa hartzen ta babia ta holako gauzak, kosetxia hartzeko oso onak ziren, ta heldu denporaz ta onak ziren parajiak, baiña gogorak, lur gogorak, sikatu be nekez baiña gero busti be nekez.
- Laixan ze itten zan, betik erripan?
- Erripa, hareik geixenak, nere jaixotetxian gehixenak, elizien ondo-onduan dago nere etxia, sankristaua giñen.
- Zeuek ziñain sankristauak?
- Bai. Hamazortzi urteaz be fanda nau ni mezia esan ereitten abariari.
- Esan ereittera?
- Bai.
- Ez zan bestela gauza ala?
- Behixak itxi soluan, eta harek kanpaia joten auen zazpi ta erdi inguruan, eta monagillo txikirik ez euen mutikorik auzounan, eta gu sankristauak.
- Zeuk in bihar monagillo.
- Ha [...] ezin ba fan, ta abariari mezia emun, ta berriro behixak, behixak han, ba solora. Bai, txikitxuak, han ibiltten giñen.
- Eta beste ze lan eukitten zeuein sankristau moduan?
- Handik gaiñera? Handik gaiñera ba lanok, ze ingo geuen ba?
- Elizia garbittu eta zeuek itten zebein?
- Ez, ha amadekasiak, amadekasiak itteuen. Gure lana izaten zan abariari lagundu ta [...] kantau.
- Zela da kantu hori?
- Hori? Ahaztuta daukat nik.
- Latiñez.
- Bai. Monagillo eta ene!
- Zein zan abaria orduan?
- Don Francisco Saloña. Eta beste loba bat eukan Ekuadorren euenta, "Don Leandro", ta gero beste zazpi urtien, hor misionero egon zan. Abaria ya zaharkotia zan harek ez eukan, dotriña eta dotriña, bi alkarren onduan baegozen buruairi alkarri jo eragin klank, klank, eta holakotxe buruakin mutikua etxera!

5. Antonio monagilo fina

- **Erref:** ARE-031/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:12:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan bederatzi urterekin hasi zen. Irakurtzen baino lehenago ikasi zituen errezoak. Mezan lehenengo esaten diren berbak latinez eta buruz ikasi zituen Antoniok. Baita beste meza-laguntze lan guztiek ere.</p>

Transkripzioa

- Eta eskolan be bertan ibilli ziñan?
- Eskolara fan nitzan ni lehenegoko aldiz beratzi urte kunpliuta, anaiagaz bialdu ninduan ta, berandu izango dala eta lehenegoko eskolara fan gitzanian eskolarik ez.
- Eskolarik ez?
- (Loba): baiña bertan be egoten ziñain gabaz.
- Bertan bai, gabaz, gabaz.
- Gabaz abariakin, e?
- Bai, ta oraziño danak, harik eta komuniua txikixa itte arte, kantuan ikasi gittun guk. "Aitta guria, zeruetan..." jarri korrueen mutikuak eta dua hartzen da ta ez letrarik ez leiuten eta ez kristorik, ezebez, eta "aitta guria..." gero hareaz tonadiaz gero banan erakusten zittuan, preguntauten oskun, liburutik barik, "aber zuk, aber,aber...", hola noizian behinian behin.
- Oseake ikasi zittuein errezuak, aittaguria ta irakurten jakin barik?
- Danak, danak, errezu danak, baiña ez hola gaiñera edozein modutan, ondo, [...] ikasten danak ahaztuta dauket baiña indda nau ni urte bete pasau, dotriñatik.
- Zer ikasten?
- Mezien leheningokuak, (...), lehenegoko berbak. Eta leheningo abariak esaten euen ba han, aurrian? Monagilluakin altarera fanda?
- Ni aspaldixan ez naiz egon.
- Bai, antxiñakuak, honeik entendiuko euen. Bai, abaria aurretik faten zan monagillo, bi monagillo, ta gero han leheningokuen aittiaren ta semien ta gero "dominus vobiscum" ta esaten zittuanian kontestau, biñajeretan ura bota, izten euen sobria purra eran ta...
- Ezkutuan, ezta? Hori neuk be indda dakot, neu be ibilli naiz managillo ta.
- Jo ta akaboko gindduen, ikusi baginddu.

6. Osaba frantziskotarra Ameriketara ihesi

- **Erref:** ARE-031/008
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:15:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Osaba frantziskotarra zuen Arantzazun. El Día egunkarian idazten zuelako salatu egin zuten eta Olabera lehenengo, Bilbora gero, eta azkenean Buenos Aires-era ihes egin behar izan zuen. Argentinan hil zen osaba hori. Osaba Bilbora joan zenean, Antoniok eraman zion maleta Olabetik tren-geltokira. Ez zuen osaba gehiago ikusi.

Transkripzioa

- Eta orduen han, auzoko elizan abaria bi monagillokin faten zan?
- Bi? Zerien, Arantzazuko frailietan baiño serixuau. Arantzazuko frailietan ibillita nau ni diakonuaz, intzentuaz, tio neukan nik han.
- Bai?
- Guardianara, Don Paulo Zubizarreta, zelan da gero politiko demoniu hori? "El día"n eskribiuta euen. Eta "El día"n eskribiuta euelako, "Coronel La Torre" Oñatin, Oñatikuari sartu otsan denunzia hari, ta han soplua jaso euen zetik, Arantzazutik, ta etxando puñetas gurera etorri zan, anaiana, eta han etorri zan eta hiru-lau egun in zittuan eta han be gaizki, jente gutxi, eta gero fan zan Bilbora, Bilbon euken beste anai bat, edo bi euken, baiña bat hola oso korrientia eta bere ideakua gaiñera, ta han in zittun hillabeten bat, ta somau euen ha bera be frailia zan, ta ingurukuak be bai, ta atzian ebizena, atzian kartzelarako ez, tiro bat emuteko, holaxe zan kontua eta akabo. Fan zan Buenos Airesera, goizetik gabera ezkutau zan, ta han hil zan, han in zittuan hiru-lau urte.
- Hanka iñ eben, e?
- Hanka, argi, argi, lagun onak euken harek.
- Eta hori noiz, ze urtetako kontua dan goguan dakotzu?
- Hori? Hori gerra... honaxe zera etorri ziranien, Oñati eta Aretxabaleta eta hartu zittuaiñian, hortxe, hortxe! Hamabost egunen barruan danak be. Gero gurera etorri zan, ta gurian egun bi edo hiru in zittuan, eta ondo goguan dauket garixa jorran ebillen aittajauna, haren aitta, aittajuna aldamenien ta ni maletiaz erakusten, berari estaziñora lau t´erditako automobillian, trenian fan zan, nik harrezkero ez dot ikusi. Ta aittajuna goixan bertantxe, bidia bittarte, eta "ez dotsau aittari ezer esan biharko, ez dotsuau aittari esan, pena igual hartuko dau eta, guazen, guazen aurrera". Eta ni maletintxuaz eta abariori handik bera, edo abariori frailliori.
- Trenera.
- Trenera. Trenien sartu zan eta Bilbora, eta gero Bilbon be itxuria somau euen zerbait ebillela, nun zan edo zer edo, zerbait, eta...

7. Julian lehengusua Kuban fraidetu zen

- **Erref:** ARE-031/009
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:15:14. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Arrasateko artzapeza zubipe batean hil zuten. Pedro Paulo Zubizarreta zen osabaren izena, Arantzazuko Guardianara. Antonioren lehengusu bat, Julian, Kubara joan zen eta frantziskotar bihurtuta itzuli zen handik.

Transkripzioa

- Abariak be ez eukein barkamenik orduen, e?
- Bai, barkamenik, ebatu arte garbittu ingo euen, Mondraueko arziprestiei ze in otzein ba? Zubipehien jota garbi ta kitto.
- Eta honen fraile honen izena zela zan, zela esan dozu?
- Harek Paulo, Pedro Paulo euken, Arantzazun. Eta Guardian euen, Guardiania.
- Eta apellidu zela?
- Zubizarreta.
- A, Zubizarreta, zuen tartekua?
- Eta Zubizarreta beste bat be baeuen, Julian, baiña ha zuen edade inguru, neu baiña, bizi izan balitza nik baiña gehixau, "noventa" inguru, Julian Zubizarreta. Ha berriz lelua, berez, eta tio Guardiania etorten zan ta, "holako markarik, holako markarik". Estudixau ta gero oso torpia, ezebe ulertu ez Julian hori. Sikiera kanpora norabait ez jagok bialketako, baiña parientia zan, primue Julian hori.
- (Loba): nungua zan Julian?
- Isurieta Azpikua, Pedron semie. Gero fan zan, Kubara bialdu euen, eta handik abade egindda etorri zan. Abade edo fraile egindda.
- A, Kuban samurraua.
- Astakumillua. Honeik [...] esaten dira baiña, gure aittak ixa abadetxo batek aiña ekixen, latin dana ekixen ondo, peapa kasi, kantuen eta danari hartu. Harek be bai, egunen batzuk etorten-edo aitteri-te, Pedro [...] Isurieta Azpiko Pedro, hilda eta haren entiarrua ta entiarrua pasau eta ba mezia.

8. Julianek "noturnorik" ez

- **Erref:** ARE-031/010
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:18:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Julian lehengusu fraidearekin hileta elizkizun batean suertatutako pasadizoa kontatzen digu Antoniok.

Transkripzioa

- Eta notornua kantaten zan meziegan aurrera fanda, notornua, Oñatin be antzera ingo daue, edo ingo euen. Oin e, fanda dagoz horreik baiña, notornua kantetako gertu eta kantau [...], eta berak zeretik urten naz, sakristixatik urten naz, "etorri hadi ba, etorri, jentia begira jak eta etorri hadi ba", "ni horra, (euskeraz erdi ahaztuta eukan), ni horra bapez fan"; "baiña jentia dauela zai"; "ni horra" eta barrero aitta hori zera fanda, aittak be ondo ekixen zelako zein zan, eta aittiorrek "etorri bihar dok edo ze in bihar dok?", barrero "ni ez, beorrek batez emun neuri, neuk be ez beorri". Etxia fuertekuak ziran, gaur be bai eta orduen be bai, ta "neuri bapez emun, neuk be ez beorri". Halakon baten noturnuori kantau eragin otsan aitta horrek eta aittak hasarre. Holako abaderik ez juat nik ikusi, bera ez doielia errezetan, ha zeuen mormozetia.

9. "Maiordomo" Untzillan

- **Erref:** ARE-031/011
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:18:41. **Bukatu:** 00:22:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Untzilla auzora etorri zenean, sakristaugintza urtero txandatzen zuten auzoko baserriek. Tokatzen zitzaionari "Maiordomo" deitzen zioten. Araoztar abade on bat gogoratzen du, Don Jorge. Erresponstsuak txapelean batzen zituen, eta batzuetan batutako dirua mutikoei botatzen zien.</p>

Transkripzioa

- Eta gero honutz etorri ziñanien, hemen be antzerako kontuak egozen-edo?
- Zer, hemen?
- Honutz etorri ziñanien, Atxabaletatik...
- Hementxe ba, bizi.
- Hemen be antzerako kontuak?
- Ez, hemen diferentziak...
- Hemen ez ziñan sankristau?
- Ez, sankristau txandaka hemen, etxe bakoitzian urtien bat egoten zan. Eta oiñ hillian itten dogu, kandelak ixo ta lagundu, hillian batek, beziño batek. Baiña orduen urtian, kanpaia jo, kurtzia ibili entieron bat beuen, edo kurtziagaz-edo, lehenauko legera. Holakotxe lanak itteko urtien bat egoten zan; neuri be tokau jatan birritan edo hiru bidar-edo, maiordomo esaten jakon, abariari lagunketan. Gero errekaun bat abariari, hau edo zerbait in biher bazan ba abariak. Abariak ez auen lanik itten. Abariek e... bat euki gauen abaria ona, Zarauzko semia, Don Jorge Barandiaran-edo apelidua zela eukan, honeik komerixak eñiko abariak. Harek erresponstsuak, erresponstsuak abariendako beretako izaten da, urtien meza bat edo bi emuten (di)ttu, han batzen zan diruaz, orduen, oiñ bapez, oiñ dana barrura. Don Jorgiori, amadekasia zelebren bat euekan, eta bera zelebren haundixagua, betik gurien egoten zan, ta jolasien eta gustaten jakon, eta erresponstsuok iñ tte mutikuok elizpeian begira ta, "diru zikin hau zertako dizkiet ba".
- (Loba): bota?
- Ba, txakur txikixa, aittaguriako txakur txikixa botate jakon, ha txapelaz egoten zan batzen, illarriestan, illarriestan, "diru zikiñok zertako biher dizkiat ba nik", motikuok han buru apurtu bihar!
- Hareik diruak hartuta.
- Geure aittajunak eta aittak esaten auen, horrek, horrek abariorrek txakur txikirik be ezin lekiek aurreratu! Gabien etorri, ta gu mutikuok ohien bageozen, izaran hartu ta kortan, edo ganuak egoten diren lekuan, erdixen egoten zan zarramarriak, zerak azpixak egitteko zikiñak tapetako eta han belar pillan itxi. Mutikua fan ta...
- (Loba): han iretzartu igual.
- Iretzartu, gure Endrikeri, ni artien txikitxua nitzan, baiña honein aittek, zenbat bider ete euen, tio Gregorio, ta harek berak hartu ohien, ta izaratoko beste osuen hartu, gero zera hartu ta kortara eruan ta, ene, ene, ene, komerixak!

10. Abadeekin harreman handia zuten Berraondotarrek

- **Erref:** ARE-031/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:22:01. **Bukatu:** 00:24:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Don Jorge abadeak mutikoekin jolasean ondo pasatzen zuen. Txopitea, don Angel, don Frantzisko eta don Antonio; Antoniok Isurietako elizan ezagutu zituen abadeak.</p>

Transkripzioa

- Fruta denporan, frutak be, ortua haundixa eukan eta hau ondiok, ta batu sagarrak edo makatzak-edo, ta mutikuak [...] eta neskatillak be bai, fan bentanara, ta bentanan kirtenetik lotu, eta aber zeñek hartzen auen, zeñek salto haundixaua itten. "Ointxe, ointxe, hartu, hartu, hartu ointxe", ta [...] gorago altzau, baiña gozau itten auen holakotxe zerak itten.

- (Loba): hori nor jan ba, Txopitea?

- Ez, don Jorge. Txopitea aurrerau, don Angel.

- (Loba): atzerau egon zan Txopiteatik?

- Ez, ez, aurrerau, nik horrenetik honutzeko abariek danak jakixat zeintzuk egon ziren. Txopitea ez, eta azkenetan...

- (Loba): azkena izan zan don Francisco, ezta?

- Baiña azkenengo aldiz han egongo zuan, bai, urtiak.

- (Loba): azkena don Francisco ez zan izen?

- Azkenengua don Franzisko, baiña lehenagoko urtietan, ni mutikotxua, ni bautizau don Antoniok egin nindduan, burgalesa-edo ez jakiat nungua zan be. Eta handik honutzeukuak. Eta don Anjel be bai, don Anjel be popularra. Don Anjel be estudixuatik abarieri eskatu, edo obispuei zera-ta, puestua-ta kanbixateko han estudixetako, eta gero kanonigo edo ez jakiat zer in zuan, Donostian hil zuan Txopitea.

- (Loba): ehun urte ingurukin-edo hil zan.

- Bai, urte morduaz. Guk asko tratau gauen, horreik danakin, bertan eukitten auen, ezer biher beuen...

- (Loba): beziñuak.

- Hemendik eta hara, gurera beste ingurura eliziori, bertantxe.

11. Orduko eskolak

- **Erref:** ARE-031/013
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:24:06. **Bukatu:** 00:25:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bederatzi urterekin hasi zen eskolan. Hiru erregelak ikasiz gero, mutilak gertu omen zeuden garai hartan lanera joateko. Gaez ere egoten zen eskola. Anaia batek maristetan eta beste batek Fraisoroko eskolan ikasi zuten. Fraisoron ikasi zuen anaia gerran hil zen, Artxandan.</p>

Transkripzioa

- Zuk esan dozu abariakin ikasten zeueilla errezaitten, kantuan eta zera; eta eskola formalik euki zeuein?
- Bai, beratzi urteaz fan ta, bertan eskolarik ezin, ba ikasi bai, bai, baiña orduan be beste gauza batzutaz [...] egoten zan. Maistrua, maistruari erregalua itten jakon txarrixa hiltten zanien. Erregalua buskantzak eruaten jakon eta bestia ta jentia mezetara asko faten zan kalera, zortzi tt´erdittan. Eta maistrua ba kukuka, hiru erregla ikasi ezkeru, “zu, semiak ointxe hiru erreglak ikasi eta ha ondo dau”.
- Zer ikasi?
- Hiru erregla.
- Ondo dau. Eta hurrengo egunean Arruenera mutikua fabrikara sartzeko. Oso sobresalientia izan ezkeru, bien, baiña bestela ze ikasiko zebeu ba? Hiru regla, hiru zeok, “multiplicar, dividir eta restar”.
- Zenbat lagun juntaitten ziñain eskolan?
- Eskolan kuadrillatxua, eskolan gabien be egoten zan, gabien nagusixak be bai, Endrikek be makiña bat, neu be bai, neuk baiño gehixau beste anaiek.
- (Loba): aitte maristetara be joan izan zan.
- Honein aitte maristetan, honein aitta eskolian ondo euen, eta beste anaie, Fraisoron egon zan, hil zana, gerran hil jatena.
- Fraisoro, diputaziñoko eskolan?
- Bai, urte bixetan sobresaliente atara auen, gero propuesta danak euen puestuek hartzeko, baiña gerriek hartu auen ta, deittu otsain soldau ta Artxandan hil zan.

12. Anaia gerran hila

- **Erref:** ARE-031/014
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:25:57. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Mortero batek berna eta beso bat kendu eta odolustu egin zen Antonioren anaia. Bertan lurperatu zuten; baina familiak, hara joan, hilobitik atera eta etxera ekarri zuten hilotza.

Transkripzioa

- Artxandan besue eta hankie kendu otsen. Komandantien ordenanza, ta Artxanda hartu auenien itxuria, Atxabaltakuek be beukan lagunak han, bere kuadrillakuok, eta komandantiari parten bat erueten fan da, han frentien ez euen, bera fan da, bere atzian euen komandantien ordenantza, emun otsan papela eta papelori emun eta han lagunekin botie, baten batek ardaua eukan eta tragon bat itten korruen jarritta dagozela, berak tragua in eta eskua hola dakola, bera eskua eta hankie, ikusi notsan nik, besue ta hankia, besuen holako zatitxo bat aukon txintxilizka, eta ha zapata eta guzti ekarri in euen, gero mediku zahar bat Atxabaltan geukan...
- Bonbazon bat-edo?
- Morteruek jo, betien, eta jo ta kendu. Eta gero handik Durangora arte, zerak, ebiltten zittuen gomak lotzeko danak, frentien ebitzenak, honako

metro erdiko gomak, frentien heriuten bazien lotzeko, odolak korriu ez daixen, ta hanka bata lotuta eukon, ta bata lotuta ta bestiari korapilla egindda, hemengua, besua, lotuta, eta hemen korapillak itxuria, korapilla bertan odola dana mobiuata euki, odola darixola auen zeretik, golpian itto, odolestu. Handik eruen gauen kamillan. Eta bestaldera total iñutil geratu biher auen, ez beso eta ez hanka, baiña...

- (Loba): enterrau in auen, ezta? Atara in auen zulotik barriro. Enterrau in auen uste dot. Eta gero aittek eta atara in auen, zulotik atara eta etxera ekarri auen.

- Bai, atara. Ba mediku zaharragatik bestelakuagatik ez, guregatik aittajaunak in jotsain abariari, dakon mezia emuteko ardauna edan, han egozenak. Garrafoikadia eukitten jua, [...] bat bai.

13. Gerraostean, goseak umeak hil

- **Erref:** ARE-031/015
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:31:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Antonioren aita Baserritarren Elkarteko lehendakaria zen. Milizianoekin arazoak izan zituen behin. Gerraostean, gosete handia egon zen. Ume asko jaio eta berehala hil egiten ziren, gosez. Aingeru-kanpaia maiz entzuten zen.</p>

Transkripzioa

- Gure aittak orduan soziedadia, eusko nekazarixen soziedadia euen, baserritarrena, eta hango presidentia zan gure, nere aitta. Ba milizianuok etorri zirenien, han jebiltzan ikusten ta bestiek etorri zirenien [...] aitta zuri-zuri egindda, tirua bai jaurtiko ez jaurtiko.

- (Loba): baiña hori zurixek etorri ziranien, nazionalak etorri ziranien.

- Ez, nazionalak etorri aurretik, zera zala, karlistia zala, eta gero baserritarren zera, agirixa eukonien, presidentia eukonien itxi otsan.

- (Loba): orduen librau zan.

- Bestela eskaratzien pasauko euen, [...] baiña hareik garrafoikada ardauna edanda jauzan, eta gaiñera mezia emuteko ardaurik onena.

Lehenauko gauzak oiñ kanbixauta daz, lehenau gauza baltzak egoten ziren, etxien sarrittan guk geuk ez gauan ahal dan moduko egunik bat be pasau baiña, etxerik gehixenetan "hambre y palo", badakitzu?

- Kalien gehixau edozein modutan baserrittan baiño, ezta?

- Kalien, kaleko ogi zatixa euki ezkeron ondo ebitzen, ondo; gu antigual, gure janari maiorra izaten zen artua, esnie zopak, [...] guk jana sekula ez dogu euki nehikua baiña famelixa asko ahal dan moduan, eta umiek berriz, jaixoten zirenak, hamarretik beratzi t´erdi hil, gosiek. Titixa emun bai txupetako baiña esnerik ez. Umiek debillak egoten zittuan, eta aingeru-kanpaia ixildu barik, ten-ten-ten [...], ten-ten-ten geratu barik.

- Oiñ ez dau sekula jotzen aingeru-kanpaia; oiñ ez dauela jotzen aingeru-kanpaia, oiñ ez da umerik hiltzen.

- Oiñ jo ez daue itten, baiña biharrik be ez. Oiñ umiek zela hilgo dira ba? Baiña lehenau palo, kuidau, esnerik emun, gero bestela titixa samurraua, emun besterik ez; ha ez baeuen esniaz ba bialekua, lana, eta lana

ebitaitegatik, leheningo leheningotik, aiba hor dauken, eta emun titixori, han hutsik. Baiña asko, eta Atxabaltan kanpaia ixildu be ez, ten-ten-ten-ten... Aingeru-kanpaak joten ziren, diferente.

14. "Txindurri" abeslaria

- **Erref:** ARE-031/016
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:31:08. **Bukatu:** 00:34:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>"Txindurri" izeneko abeslari ezagun bat egon zen Aretxabaletan, indar handiko ahotsa zuena. Meza kantatzen zuenean jende andana etortzen zen entzutera. Abesten ziharduela hil zen. Baserritar arrunta, kuadrilla zalea zen "Txindurri".</p>

Transkripzioa

- (Loba): nik anaieri entzunda dauket, zela 'Txindurri' eta izan ziren ba? 'Txindurri' akordetan zara?, kantantie ta...
- Bai.
- (Loba): horri zenbat anaia-arreba hil jakon, edo bueno, jaixo aurretik kontaten daue zenbat aborto euki zittuen. Ez dakotzu entzunde?
- 'Txindurri' hemengua gogorra zuan Atxabaltan; halako ezarria, ondiok be fango nitzake biher den moduan bere kantua entzuteagatik. Elizan danak izten zittuan hola, eskuak helduta. Lagun haundiak eukan Atxabaltan be, honeik Garzia, Garzia anai bixak, Alejandro eta bestie ta Romualdonak, eta dezentetxua kuadrillia. Ta Andra Marixetan etorten zan sarri, mekaue, kantuan ein bi'zania hartzen zeban pañueluok, baiña flamenko jantzita ibiltten zan, igunduko zera, lazuakin-tte, mutillak, kanturriaitten ekitten otsan aguro eta Ave Maria baten kantau auen Taberna Barri aurre-aurrian; Santa Agedatik be entzunda ha lekarixua! Eta senzillamente kantetan auan [...] eta gero kantuen euela hil izan, derrepente hil zan.
- Kantuen euela?
- Kantuan, hori egongo da eskribiuta. Holako ezarri onik Europan beste bat, bi ez, akaso bat deskuidauta. Eta Atxabaltan Andra Marixetan etorten zanian eliziok eta bere kantua entzuten, mezetan kantuen egoten zan, eta Ave Maria kantetan auen [...] eta Salbia be bai, bi kantu, kantetako Atxabaltan koru ona egoten zan, baiña hari brillo emutekorik ez. Atxabaltan korua bakien itxi. Orduko urtietan.
- Eta bera bertakua zan?
- Bertakua.
- (Loba): Mutikotan ez zan gaiñera pastore-ta ibilli? Kurtze Barrittik, ezta?
- Bai, oso baserritarra dok, normala, eta haren aitta ta beste arreba bat be urte askuen egon zuan Kukun aurrekaldien bizi zuan. Ha zan elementua, Atxabaleta danakin, bera be halakotxia zan, harek euken kategorixan pixka bat hola [...], baiña bera zala eta haintxe gustora. Lehengo [...] abaria moduen.
- (Loba): kuadrillan?
- Bai, kuadrillan.
- (Loba): ha munduan zihar ibilli zan kantuan, operan.

- 'Txinddurri' esaten xatzuen?
- (Loba): 'Txinddurri' gaitzizena.
- Bai, bai.
- (Loba): danak eukien, anai-arreba danak holako... entzunda daukat nik amari, ha behintzet 'Txinddurri'.

15. Gerraostean eskean

- **Erref:** ARE-031/018
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:34:52. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>"Txinddurri" Altube zen abizenez. Gerraostean bere aita eskean ibiltzen zen Aretxabaletan.</p>

Transkripzioa

- (Loba): bai, famosua izan zan, monumentutxo bat badauko. Andra Marixetan etorten zan hori kantuen.
- Eta ze izen eukan horrek, kantuen itteko?
- (Loba): bera? Altube apelidue. Izena ez dakit.
- Euren izena 'Txinddurri' zan, Txinddurrixena. Eta gero aitte be oso elizarakua, batzen ibiltten zan, urtietan, dezentetxo in arte. Gero Errota Zaharrekuak ibiltten zittuan, hik hareik be ez hittuan ezagutuko. Bai?

16. Estraperloko kontuak

- **Erref:** ARE-031/019
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:35:35. **Bukatu:** 00:37:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Estraperloa trenez eta kamioiez ekartzen zuten, lastopean garia gordeta. Antonioren anaia bat eta Akixotarrak ziren estraperlo maisuak.

Transkripzioa

- Horren aitta-eta ibiltten ziren elizan, batzen, limosnia batzen. Ba orduen dana halaxe zan, batzuk tontokerixia bazan, bestiek bestia bazan, gu halaxe gaz ikasitta, guk besterik ezebe ez dogu ikasi. Hantxe, aurrekaldian fan ta erreberentzia egin, eta buelta in ta...
- Gose urte horreittan estraperlorik-eta itten zeuein? Arabatik estraperlua?
- Bai, estraperluen biheko egin, nik beste pulsta ez dozue in trenari. Honen aitta zan direktoriori, estraperluen.
- Ze itten zeuein, astuakin?
- Bai zera! trenien, trenien, zeraz, Akixo, ha be honozkero hilgo zuan...
- (Loba): jefie-edo izan zana?
- Lehen zerien eguena, Atxabaltatik Eskoriatzara fan zana, Akixo.

- (Loba): ez dakit bizi dan.
- Jefie, zerekua. Hareaz lagun itten zan eta gero bagoie hartu eta pultsaka ekarten xuan, Laminaziñoko Ororako bidia. Han kaja ahorrosera jauan estraperlu lekuori, eta gero handik Arrasatera.
- (Loba): han kargau ta...
- Olixua-eta, zer ez.
- (Loba): kamioien be bai itten auen.
- Baitta kamioien be asko.
- (Loba): lastua gaiñien eta azpixin garixe.
- Bai, Arrasatera kamionkadak erueten neu be fanda nago ni, anai Endrikekin batera. Horixe. Baiña harei holakotxe zakua hartu eta bixkarka erueten gauen. Eta sarrittan bagoie punta-puntaraiño.

17. Hiru aretxabaletar Oiartzunen fusilatu zituzten

- **Erref:** ARE-031/021
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:41:07. **Bukatu:** 00:43:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Akixotar bat, batzokiko lehendakaria zena, Oiartzungo kanposantuaren kontra fusilatu zuten. Isidro Garziaetxabe eta Alberditar bat ere hantxe bertan fusilatu zituzten. Herrian bertan ez zen fusilatzerik izan, baina bost miliziano hil zituzten Santa Lutzian borrokan, Isurieta buruan.

Transkripzioa

- (Emaztia): afusillau, hil in zan, zu, Koldo.
- (Loba): afusillau, klaro, hor Oiartzungo afuzillauen artien bat. Oiartzungo horreik afusillamentu famatu horreittan. Akixo bat ez auen afusillau Oiartzunen?
- Bai, Batzokiko presidentia. Orduen batzokixa zerien jeuan, plaza aurreko han goixan, plazatik Mateon alderako goixan, kantoi-kantoi, [...]ta bizi ziren lekua. Bai, bai, erreskada osua, baiña afusillau, ez zeatik, eta beste bat Isidoro Garzia Etxabe, bixok horreik hil jituen, Frantzika, Patxika, haren gizona Garzia.
- (Loba): bai, horreik afusillau zittuen hor, Oiartzunen kanposantuen kontran afusillau zittuen pilla bat, Gipuzkuako jente pilla bat.
- Hemen ganora barik bi hil, Atxabaltakuak, ezebez, batek egunetan eukan andria libretako ta haren billurrez geratu zuan eta plaust, gero Akixo beste bat.
- (Loba): Alberdi be bai, Alberdi, Amaian-ta aitte.
- Bai, bai, bai, bai, baitte banaka-banaka asko.
- (Loba): Alberdi, horreik hirurok behintzet bai, nik dakidala. Ba herrixen geldittu zirenak eta ez eukien ezebe ta...
- Eta herrixan bertan, egon zan afusilamenturik?
- Afusilamentuak egongo zittuan, muliaz fateko abixauten otsen; muliaz fan ta goizeko bostetan urtenda hemendik, eta topau egik.
- (Loba): herrixen bertan afusillamenturik?
- Ez, ez, bertan ez. Unikamente gauza fue in auen Santa Lutzian, han Santa Lutzi, Isurieta buruan. Hil ziren bost, atakien edo zerien, abanzau euenien, handik kondenetan auen Atxabaleta harrapetako, trena ta dana, Mugarrittara, oiñ bariaziñua dauen Mugarrittara ataketan auen ta

inkomunikauta geratu ziren Atxabaleta eta Eskoriatza eta hori danori. Ha [...] hartu ezker, Isurieta burua hartu ezker, [...] ha hartu auen, asaltau auen soldauek, han pasua egon zedin, ta milizianuak egozen han, ta haxe zera, bittartia.

- Han hil ziren batzuk?
- Han bost hil ziren.
- Atxabaletarrak?
- Keba!

18. Nazionalista izateagatik zigortuak

- **Erref:** ARE-031/022
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:43:58. **Bukatu:** 00:47:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Antionioren izeba baten ahizpari, Mari Klarari, ilea moztu zioten nazionalista izateagatik. Isidro, Pantxikaren gizona zenak, harategian pistola atera zueneko. Ganorarik gabeko hilketak egon zirela dio Antoniok. Oñatiko komandanteak Antonioren osaba frantziskotarra begi txarretik hartu zuen, konfesatokitik erregimenaren aldeko propaganda egitea ukatu zuelako.</p>

Transkripzioa

- Milizianuak-ta, kargau mulan, eta Atxabalta oiñ beste ez zan, Atxabalta Arruenetik Porrukoeneraiño, eta hilddako [...] darixola-ta, kalien gora behera, ba propagandia, [...], gero barriro Maria Clara, zerekua, Enrike eta tio Marianon aitzie, Azatzako Zarbiarteko gizona, Timotio, ha be nazionaletara itten auen, nazionalistia zalako, ulie zero ebagi andriorri ta kalien [...]

- Hori Oñatin be in euen.

- [...] ulia zero ebagi, Maria Clara. Nire tia zan haren aizta bat; eta andriorri biheko ixilddu. Eta Porrueen Pantxikan gizona, zerien, maristetan ifini euen zeori, kuartelori, eta hori janen suminstrua gero egitteko. Eta fan da karnazerixara okelatan, Ixidruori, eta nazionalisten dirua emun, diru zurixa esaten jakon; eta ha hartu gura ez, ha ez zala dirua eta harek haxe euki, ta "hau ekusten don hau?", "lagunak, hau ekusten don hau?" pistolia erakutsi. Handik denpora gutxira jo ta garbi eta kitto." Hau ekusten don hau?" Bata tablan saltzen ta bestia hartzen, eta diru zurixori "[...], hau ikusten don hau?" Eta holaxe, ganora barik matanzak, ez kulpa eta ez delitto eta ezer ez. Orduen galdu in auen asko. Eta guriak be, gure frailia be antzera galdu euen. Gure frailiari oiñ akordau jat barriro. Tio, Arantzazukuari, etorri jaten "komandante de puesto" Oñatin euen, fan frailiana, gure zera, Guardianara Arantzazun, eta konfesarixuen-ta, itteko propagandia igunduko zerak, esplikaziñuak emun dotso komandantiorrek, Oñatikuak. Eta berak ez doiala han propagandarik itten, ha ez daukola ze ikusirik eta kontestau dotso eta hantxendixek hartu fletxia eta galdu auen tio. Konfesarixuan eta itteko propagandia ta regimenen alde. Eta gero bestieiri komeni ez, eta argi ibili zirenari eskerrak.

- Hor hasi zan orduen bestien estimua galtzen?

19. Gerran habailaz borrokan

- **Erref:** ARE-031/023
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:47:33. **Bukatu:** 00:51:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Gerra karlistetan parte hartu zuen Antonioren aitajaunak. Honen anaia, berriz, espioi gisa aritu zen garai horretan. Harrika edota habailaz borrokatzen zuten karlistok.

Transkripzioa

- (Loba): Kontau eizu aittajunena, gerra denporakua, karlista denporakuak.
- Karlista denporakua oinguen aldien formala.
- Karlisten gerrak...
- Harek larogeta... nire aittajaun hil zan larogeta beratzi urteaz. Eta oin dabil karrera bat, gura nizkio, neu zela nauen bakarrik, ba irabazi.
- (Loba): irabaziko jatsu, tio, urte bete falta jatsu. Irabazi eta pasau. Eta tia Benita?
- Tia Benita aurrekua.
- (Loba): ha larogeta hamaika edo larogeta hamahirukin zenbatekin hil zan?, ondiok falta jatsu.
- Ha ibili zan beratzi urte gerran, nire aittajauna. Gerra karlistan. Hemengotxe semia zan, han handikaldeko semia; eta beste anai bat espionaje karlistetarako, orduen espionajia ez auen afusillamenturik. Eta soldau fan bihar auenak, aurreko hagiñak ez beukon librau itten ziren. Kartutxuari tirua jaurti eta pistoia atarateko, -ez auen orduen industria asko aliketak topetako-, ba ha pistoia sartu eta aurretik zakuen bota polboria, sakatu eta puun! Ta keia, eta [...] ba hurrengoko barriro hagiñak atara in biher. Bata, bata gerrerua zan aittajauna, eta anaie espionajia eukon, ha lehenauko gerria parte, baltzak eta zurixak, harek esaten auen naparrak ziren zurixok eta baltzak gorrixok.
- (Loba): liberalak.
- Liberalak, bai. Ta han ze saltsa edo zela, erueten auen haren anaiek espionajia Araoztik hona, horreiri zela esaten jakok hor, herrixeri...
- (Loba): harutze, Araoztik harutze?
- Ez, ez, Elorrixo edo hau, Elgeta ta hau.
- (Loba): horraño itten auen?
- Horraño kua eukon nire aittajaunen anaiak espionajia. Harek espionajia itten auen, ez dakit ba nundik enteretan zan, "bueno, hemen atakia jak", eta preparetan zittuon harrixok eta zittuon bazterrok ta faten ziranien, kolumnia faten zanien, bestiek gordeta egon, harrika eta harrapaitten zittuenok bota harrika, eta biaje, hanka!
- (Loba): eta abaillia...
- Abaillia be bai, abaillia, erremintta ona eta Mauserra eukon. Baiña horreik leheningo abailliaz ekin intsen; gero Mauserra, erremintta ona eta beste bat akordetan ez jatena. Narru baten harrixe batu, bikotxa izaten da eta bateri jare egin eta harek botaten dau bide morduen. Gerriori haretxeaz.
- Guk Oñatin egin gotsan bateri, eta harek esan oskun bere aittajunak kontaitten otsala karlisten gerran makillakin itten euela burruka.
- Makillak, jakiña!
- Ez ezpatarik ezta ezer, makillakin.

20. 800 mozkor

- **Erref:** ARE-031/025
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:59:58. **Bukatu:** 01:02:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Soldadutzan, Tetuanen egon zen. Nafarroan makiak gogortzen ari zirela-eta, beste 800 soldadurekin etorri ziren trenez Tetuandik. Lizarran gelditu ziren, errekan apur bat garbitu ahal izateko; eta, garbitu ondoren, herrian edan zuten ardoarekin den-denak mozkortu ziren.</p>

Transkripzioa

- (Loba): oiñ beste gauza bat kontau bihar dotsuzena da handik hona, Estellaraiño etorri ziñatenien, ha kontau egiozu.

- Ha, mozkorra?

- (Loba): mozkorra kontauizu. Bijaie lehenengo handik, Estellatik honaiño...

- Hemen makixak egozela, eta han gu fuerza asko geozen, beratzi kintta artien, eta makixak hemen fuertatu ziren, ETAn hasieria, hemen. Orduentxe zan ETakuak zirela, bestiak zirela, makixok ba dominauta, egundokuak itten gittuen. Eta hartu eta ekarri ginduen, bialdu, etorri gitzan hona, gure kinttakuak danak, Afrikan eozenak, Pirineuetara etorri gitzen. Beratzi-hamar bagoika mutil, bostehun in gittuan bidetan, "muchu carga, poca fuerza; mucha carga, poca fuerza", halako baten aillau gitzuan. [...] ez dakit, hamarna pezeta-edo ziren, hango deretxo danakin eta dirua danok geukan. Trenien urtetan batien ta bestien...

- (Loba): baiña aillau ziñaten Estellara, Lizarrara.

- Bai. Gero bagatoz apurka-apurka eta Estellara. Eta zertu Estellatik eta Panplonara fan biher gauen, baiña "limpiar un poco", bi teniente espediziñuan etozen, "limpiar un poco y aquí vais..." errekia bertantxe, [...] errekia. Pozik fan ta ur trago bat leheningo in eta ba sikuaz, jan eta ezebe barik, eta dirua be danok. Estellara fan eta mosuok-ta garbittu, dana, pozu guztiak beteta, bostehun inguru bai, danak [...] mosua garbittu genien begira ekin gotsan. Han leheningo ikusten gauenari "¿donde hay aquí el bar?", bestiari "¿donde hay aquí el vino?" "Aquí el vino todas las puertas". "¿Si?" Eta [...] eta danien ardaua, makauen la puñeta! Atiok zabaldu gittuen bai zabaldu! zortzirehun mozkor, neu ez beste danak, bat be zutik egoteko gauza ez!

21. Sardinak gauez

- **Erref:** ARE-032/005
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:08:59. **Bukatu:** 00:10:42

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Soldadu andaluziarrak analfabetoak ziren gehienak, eta Aretxabaletako lagun bat zen haien irakasle. Jan ere aparte egiten zuten haiiek, eta beraiek baino hobeto. Sardinak eraman zizkion behin lagunak ohera.</p>

Transkripzioa

-Hara faten zienak gehixen-gehixenak andaluz jentie [alfabetu bakuak] izeten zien danak kasik. Ez firmetan eta ez entzun be itten ez euenak. Eta ni, e, intimo lagunak gitzen Atxabaletako mediku baten semie, Eduardo Agirre, eta ha maistro, erderaz be bai, eskolie be bai. Guk ezebez, ez eskola eta ez erdera ganorazkoik ezelakoik be ez. Ha sartu zan Mayorixan berihelaxe, ta Mayorixatik be ikusten zittuen kasik andaluz gehixenak [zerik be ez] eta maistro, eskolie eundoko pabilloiak eskolie, firmie botaten erakusten utsen eta kalera, guardixara. Ta haek itten euenak, eta gero jana be aparte eukitten euen, harek berandu [ibiltten zien] eta errelebuak [itten euen] eta ha[rek] jana be beti peska edo beti sobrie, eta nik lo itten neuen lekure, ha beste konpañia baten euen, Compañía Destinos euen, eta ni Puentes. Eta harek "un poco mimaus zien" hanguek danak, eta gu gosiak amorraketan gengozenak, eta gabeko hamaiketan "Silencio" jo ta: Tok-tok. "Antton, Antton" "Ze bihok?", eta "Jaik honek sardiñok, nik harrike bota biher jittuat eta". Lo eittiai bertanbera itxitte aguro jan azur eta guzti.

22. Soldadutzako jana eta gaixotasunak

- **Erref:** ARE-032/006
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:10:42. **Bukatu:** 00:14:27

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Goserik ez zuten pasatu, baina arrantza jaten zuten asko. Tangertik ekarria. Lau-bost litrorekin 900 lagunentzako janaria egiten zuten. Colitis gaixotasuna harrapatzen zuten erraz. Komunetan urik ez zegoen. Odola botatzen hasten ziren. Txuskoak eta garbantzu beltzak. Jende asko zegoen. Gaixorik nola egon zen, 42ko kalenturarekin. 37 egunean egon behar zen 40ko kalenturarekin, etxera bidaltzeko.</p>

Transkripzioa

- Gosia pasau zenduen?
- Gosie-gosie ez, baiñe. Ez grasaik eta ezebe barik emuten oskuen-ta. Diarreak-eta eukitten gittuen asko. Peskie asko egoten zan. Hau pulpuau berriz ugeri; hori sanotxuaua. Baiñe peskiek, e, zeretik ekarten euen peskie, Tangertik, eta horra orduko dana pasau itten zan. Eta gero itten euen ez olixo ta. Honako lau-bost litroaz beatzirehun laguni perolie, eta bueltan-bueltan-bueltan koloketan gittuen erreskadan. Eta erdixen bota kipula-ta refrito bat ein beste perola baten, eta braust bota, uretan kubridu eta pri-pri-pri!, eta "al rancho". Ta ha bastante ugeri emuten euen, baiñe ahuen tragau orduko adios! Eta kolitisak ebaketan oskun. Kolitisak, azkenien diarreak segiduta segi ein ezkeru odola mobiduten da. Neu be egonda nau. Eta komunien ezin sartu, gaiñera. Komunak eozen beratzi-hamar erreskaran. Urik eta ezebez. Urek ba eskobazar batzukin bultzau eta

beti be ura bota ta. Nonbrauta egoten zien, eta bota harutza ta, ta hara kakaiñeko lekuen mataderixan txarrixak letxe odola eta odola, eta hurrengo tiriziak ataketan dau odola bajetan danian, laru-laru-laru eitten da. Eta ene!, ene!, ene!, horetzegatik gaxki. Gaxki ifinita ta pasaua (arraina). Azkenian bapez janda, ta bapez be ezin egon. Txuskua emuten oskun, eta txuskue emun eta jan orduko, kitto. Hiru-lau garbantzu, erdixek baltzak, eta harek biaje. Gero azkenera apur bat, apur bat itxuratu zan, baiñe eeei! Gero jentie be, jentie be satsan letxe ta. Lotsie botata eozenak asko. Harek gorrixetan ibilli(ri)ko jentie euan han, eta gu mutiko harzen gindduen. (Barreak). Harek be pasau zien baiña ez behinguan. Nik, e, "fiebre malte" k ebatu ustan. Eta euki nittuen termometrue ifini erozein ordutan eta gehixen marketan dau cuarenta y dos; cuarenta y dos y medio, cuarenta y dos. Goxa izen atsaldie izen "cuarenta y dos".

- Ez da gozua izango...

- Gozua ez, azkenien [...]. Hirurogeta hiru kiloaz egonda neguen, geratu nintzen. Etxera bieldu nindduen. Egonda nenguen, hogeta hamazazpi egunien egon biher zan fiebre haundixaz. "Para el que (no) pasa el cuarenta" permisoik ez, eta "cuarenta"tik pasauta egoten bazan, hogeta hamazazpi egunian, bi hillebeteko konbalezenzia. Eta gero etxera bialdu nindduen.

23. Soldadutzako zigorrak

- **Erref:** ARE-032/012
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:24:43. **Bukatu:** 00:26:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadu mozkorrei lagundu egiten zieten tenienteek ere. Hori bai, hurrengo egunean egurra, akatsen bat egiten bazuten. Zigorrak: hondar zakuarekin patioan bueltaka eta jana irakiten jan behar.</p>

Transkripzioa

-Gero mozkorrak libre eukitten dau, zenbat haundixao hartu hobeto hartuko zaue. Mozkorraz ikusten bazaue, kapitana bada be, hartu eta erretirauko zau. Ero kuartelera ero norabaittera. Baiña gero hurrengoko egunien badaukotzu bekarraan bat diferente, hau (egurra) eta hamar-hamabost kiloko haree-zakua ifini bixkarrien alanbre mehe-mehiekin, eta lau-bost buelta igual patixo danai, patixuak, barriz, kilometro bat inguru bueltaka. Ta beste berdugo bat makilliaz atzetik daleketepago itteko. Ta barriro jan-ordua aillegau eta harekin zer guztiekin jana ifini -haik soldauen aldien ondo jaten euen-. Jana ifini irekitten eta han bueltie in orduko jan in biher. Ta paso lijerua markauaz.

-Eta hori alanbriakin lotuta?

-Alanbriakin lotuta, alanbre guztiaz. Jausten baziñan akabo. Bestela tratau oso ondo bertan bazebitzen, baiña deskuidun bat itten bazauen, akabo. Hil asko.

24. Sokatiran irabazle

- **Erref:** ARE-032/018
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:33:57

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Soldadutzan sokatiran ibiltzen ziren euskaldunak, eta legionariak ez zieten irabazten. Bi anaia zeuden teniente, eta haiek erakusten zizkieten taktikak. Disko jaurtiketan eta pisu jaurtiketan ere irabazi egiten zuten, Santanderko batekin. Futboleak ere ondo ibiltzen ziren. Mandoarekin entrenatzen zuten, sokatiran.</p>

Transkripzioa

-Deportian sokatiria, kerten kuadrilla bat gengozen hor euskaldunak, eta sokatiran iñok be ez oskun irabazten. Pixue biher zan eta. Eta gero informauta gengozen zeeko bat, nungua zan be instrutoria, teniente Durango. Bi anai eozen. Eta harek erakusten oskun zerok, taktikok. "Así tiene que ser" eta..., irabazten eta. Eta gero irabazi kanpeonatu, eta kanpeonatuoi itten fan gitzen leginarixuetara, eta harei be egurra emun. Irabazi sokatiran eta. "Lanzamiento de martillo", bueltaka botaten dan hori. Beste bat plato bat, oin be botaten dittue horreik. Gero "Lanzamiento del peso", zazpi kilokua hola, ddi!. Horrek danotan pruebak eta. Platue botaten euenta danai irabazten utsena euen santanderino bat kriston besuekin, eta harek hartzen zittuenien eta berak euen baibenaz eta basuetaraiño botaten euen, eta beti irabazten. Sokatiran, barriz, gu egoten gitzen, eta sokatiran [eskasena?], nanuena neu. Bestiek holakotxe mutikotiek. "Tenéis que tirar así. Tenéis que tirar a la otra forma. No respirar mucho. De respirar se pierde mucho" ta bueno! Guk haik tarras ifini orduko aidian bueltaka legionarixoz zar guztiok. Bestiek fubolien be bai. Fubolien be Donostieko Agirre-ta eozen fubolista onak, ondo eitten euenak gaiñea. Ta kanpeoi egon zan urte bixen injenieruetan. Madrillera etorri ta Madrilguei be irabazi gutsen urte baten. Madrilgo holako klasifikaziñuoi, euren klasiai. Ta beste honei be Algeciras eta bazterretakuak jota su emon eta kitto. Eta ondo pasetan zan. Bokadillue emuten euen eta añiketa batzuk eraiten zittuen baiñe. Gero sokatiran ifini mulak. Mulak ifintten oskun kontra. Gu hemetiko aldetik zortzi mutil. Bestealdian mandua. Manduai samur irabazten jakon.

-Bai? Manduai samur?

-Bai. Ha da!-da!, konsegidu itten badau faten, orduan ez. Baiña konsegidu arte listo eonda eusten ba dutsazu pot itten dau. Bera be atzeraka.

25. Hiru egunerako ziegara

- **Erref:** ARE-032/021
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:36:01. **Bukatu:** 00:38:34

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Guardia egiten zebilela, batera eta bestera, koronela leihotik begira. "Usia"ka tratatzen zuten koronela. Esan zion hamar pauso soilik eman zitzakeela alde bakoitzera. Erreleboa eskatu, eta ziegara bidali zuen hiru egunerako.</p>

Transkripzioa

-Baten tokau jaten Mayorixa azpixon guardixan. Puestua egoten zan, guardixie, eta tokau jaten ba haraxe guardixara eta. Jakiña, puerta prinzipalian eta zentinelak ezin leike ein, hamar pauso harutza eta hamar honutze. Eta ni baneuen, gaiñekaldien bizi zan, txaletillo bat eukon bertantxe, holaxe begitu besteik ez. Eta tipuoi han goixen, bentanan. Miradore, bentanan behera begire eta. Mekauben , ni ba batien harutza fan eta bestien honutze etorri eta holako inportantzie bako... Prinzipala izen balitz baiña, han nebillen bueltaka ta. Hor plantetan jatek koronela, taka-taka-taka, -taka-taka, ta: "Usted no está informado bien". "Sí mi Usia, sí mi Usía!" Ha be "Usía" tratau biher. Koronela "Usia". Eta "usted no está informado bien". "Sí mi usia, me parece que sí". "No. Usté para allá no puede hacer nada más que...", berak ebatu eskutik eta: "uno, dos, tres, cuatro, cinco, seis...", hamar pauso. "Ahora allá otros dies puede hacer. Más no. Llámalo al cabo cuartel". Ointxe fan biherko juau keizpera. Txarra zan, Imanol Martinez Ruiz.

-Kabuoi?

-Ez, koronela. Ha gizon haundixe. Balazo bat ahuan, matraille guztia apurtute eukon eta. Ointxe fan biherko juau. "Díle al cabo que venga". Ta "cabo!, cabo!", urra neuken baiñe entzungo ete justek, fango ete nok oin hemendik harutza , eta neu sartu kalabozuan. Konturatu zan eta etorri da kabuoi ta: "releve esto! Este no está bien informado y releve!". Relebau eta hiru egun kalabozora.

-Zeu?

-Bieko fan. "No está bien informao", nik ez neuken kulpaik baiña. Holakotxe ...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com